

# Arrasate

P R E S S

1995eko  
irailak 15  
288. zenb.

ELKARRIZKETA

**Antxon Iturriza**

KIROLAK


**Igeriketa taldea  
jende beharrean**

KULTURA

**Iñaki Riviere**

## Guatemala

**Arrasatear bi  
genozidioaren lekuko**








*Zeramika  
erakusketa  
eta salmenta*

Uribarri Etorbidea, 22-B  
Tfnoa: 79 81 80 • Faxa: 79 81 80  
ARRASATE



**LOGELETAN** espezializatutako merkatal zentrua

45 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.  
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak, garantia osoarekin.  
Bestetik, logela merkeen artean, merkeenak.

**BENETAN  
HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE



# Zigorgabetasuna ezabatu nahia Guatemalan

**E**tengabeko udaberrian bizi den herrizat jo zuen Alejandro Humboldt-ek, baina udaberria deritzon urtarorik ez dago bere urtaroen artean. Hiru elementu sinboliko ditu: zeiba, fruiturik ematen ez duen maien zuhaitz sakratua; ketzala, abesten ez duen kolore biziko hegazti paregabea; eta monja txuria, usainik ez duen lorea. Edertasunaren atzean badaude bada ezusteko ezaugarriak.

Badago, halere, bitxikeria hauek baino dexente gehiago harritzen eta larritzen duen konturik ere. Izan ere, paisaia pribilegiatu horren atzean, biztanlego pluri-etniko eta plurilingue exotiko horren atzean, azoketako oihal eta kolore biziko jantzi horien atzean, lehenaldiaren zantzuak eta tristura ere nabari duten begi erdi-itxi eta luzeska horien atzean, irrifarrez eta xamurtasunez hartzen gaituen herri horren atzean, negarrak ia ito duen herri bat dago, oihuka ari dena, bizirik irauteko borrokan, albistegietan oso gutxi erakutsi diguten errealitate bat dago.

1954an jaio zen gerrilak, bere gorabehera guztiakin, ez du lortu 40 urteotan jarraian eman diren gobernu militarista eta ustelak gainditzea. "Gerra hotza" deitu dutenak eta segurtasun nazionalen politika suntsitzailerak eta manipulatuak eratuak kontestu batean (dirudienez EEBBetako CIAk berak zuzenean gidatu eta babestua), ejerzitoak mehatxatu, erasotu, bahitu, torturatu, hil, masakratu eta herrialde osoak erraustu egin ditu.

Estatubatuarrek Vietnam-en erabilitako metodoak eta beste zenbait ere esperimentatu dituen ejerzito eta polizia honen ideologia gudu, matxismoan, antinazionalismoan, antikomunismoan, botere egarrarian eta diru errezean oinarritzen dela dio bertako zenbait ONGk. Gehien kaltetutako taldeak, nekazal-herriak, biztanlego indigena, emakumeak, haurrak, lehiakide politikoak, sindikalistak, eta elizgizonak

izan direla diote baita.

Hortik atera daitezke Guatemalan emandako 200 mila hildakoak, 45 mila atxilotu-desagertu baino gehiago, 250 mila umezurtzak, milaka alargunak, 75 mila errefuxiatu eta atzerritatuak, 440 herriska erraustiak eta mugen barruan bertan bizilekuz aldarazitako milioia bera ere.

Biolentzia hau 70. eta 80. hamarkadaren hasieran zorrotz zen, momentu hartan giza-eskubideen aurkako erasoek genozidio eta etnozidio kutsua hartuz. Baina antolamendu errepresibo horiek indarrean jarraitzen dute inpunitate osoz jokatuz eta horren lekuko dira egunero torturatuta edo tiroz hilda agertzen diren gorpuak. Sistemaren aurka edo herri-ekimenaren alde borrokatzen duen edonor mehatxatzea edo hiltzea eguneroko kontua dela frogatu ahal izan dut.

Kontestu honetan ari dira lanean ehundaka erakunde maia zein ladino eta baita mundu zabaleko ONGak ere, aipagarria baita elkartasunaren izenean zenbat begirale eta lankide igarotzen den handik.

Kontestu honetan, URNG (gerrila) eta gobernuaren arteko bake-elkarrizketak aurrera doaz, eta are gehiago: bere historian estreineko aldeiz eta azaroko hauteskundeak direla eta, URNGk tregea bat iragarri du.

Kontestu honetan, orain arteko biolentziaren lekukoak eta frogak ateratzen hasi dira zenbait izkutuko hilerri zabalduz. Jendea egia ikusten eta esaten hasi da eta beldurra poliki-poliki galduz doala dirudi. Kanpotik joandakoon eskuek, begiek eta hitzek ere asko laguntzen eta babesten dituztela diote bertakoek, beharrezkoak garelako alegia, nahiz eta guk geure burua trabatatzat jo sarritan.

Bi helburu nagusi ikusi ditugu beraien- gan: egiaren argi berria ikusi nahia bata, eta "inpunitate" hitza beraien hiztegitik ezabatu beharra bestea.

**KARMELE PEREZ**

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikitateak:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Inzar, Blanka Jaurregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoia, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaita. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



**Azaleko argazkia:** Karmele Perez

# GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**BASABE  
JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

# Memesa


79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurkitzaile Kulturaren  
Turismo Sailaren laguntza jaso du



## Kontzertua eta arazo teknikoak

**A**buztuaren 30ean Gazte-txean ospatutako kontzertuari buruzko ohartxo bat ematea bururatu zaigu. Oraindik opor garaian geunden arren arazo teknikoen erruz, zeharo berandutu zen kontzertuaren hasiera. Horregatik, talde berlindarrak duen abesti sortatik gutxi batzuk bakarrik jo zituen, gerturatutako jendetza kexatu arren. Hala ere, guk nahi baino apur bat beranduxeago bukatu zen azkenean.

Beraz, eta badaezpada, barkamenak eskatu nahi dizkizuegu inguruko bizilagunei, inor haserretu izan balitz.

*Irailaren, 6an*

**AGAKO**

## Zer gertatzen ari da Udaletxean?

**N**azka ematen dit azkenaldian egunkarietan Arrasateko karta irakurtzeak: gobernuan sartuko direla orain, ez direla sartuko behe-randuago, atzo mehatxuak jaso zituztela, bihar expedientea irekiko zaiela; hirukoaren filosofiaren aurka doala eta aurrerantzean izan deza-keela eraginik, batek; kontrakoa besteak, gaizki ulertu bat besterik ez dela; hirukoaren ahultasunaren seinale hangoak, zentsura mozia hemengoak... eta bitartean Arrasateko Udala gobernu seguru barik, herrirako proiektu garrantzitsuenak sinadura baten zain... Eta ondorengo hauteskundeetan, politikoez ahoz aho erabiliko dute "Gu

herriaren alde lan egiteko gaude hemen", benetan "Gu geure interesen alde gaude hemen" pentsatzen duten arren.

**J. A. Herrasti**

## Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutuan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzearekin izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzitzen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datoren gutunik ez dela argitaratuko.

## Zinemak 100 urte... euskarak milaka!

*zinemak 100 urte, euskarak milaka!*



Euskal Herria  
Jatorrizko Bertsoan!

*zinearen*  
**aeK**  
euskarategi eta barnetegietan

**Barnetegiak  
FORU eta  
ONDARROAN.  
Informazioa:  
625 35 69**

## Arrasateko ERDU-AEK euskaltegia

**EUSKARA IKASTAROAK**

- **Maila guztiak**
- **EGA eta Alfabetatze**
- **Gurusoentzat klase bereziak**

Matrikula epea  
**Irailak 28ra arte**  
**Beka sistema**

Informazio eta matrikula

**Garibai, 14 - 3.**

**77 03 69**





# Zer duzu esateko proba nuklearren gainean?




**Gorka Eskibel**  
**Ikaslea**  
**(19 urte)**

Gaizki iruditzen zait proba nuklearrak egitea. Gainera, Frantziatik kanpo egin dute, munduko beste puntara joan dira.



**Eugenia Irasuegi**  
**Etxekoandrea**  
**(51 urte)**

Armekin egiten diren proba guztien aurka nago. Probak geratzeko eskatuko nieke baina ez frantsesei bakarrik, beste batzueri ere bai.




**Martin Nafarrate**  
**Langilea**  
**(40 urte)**

Oso gaizki iruditzen zait orain horretan hastea. Munduan badaude beste behar batzuk.



**Txaro San Jose**  
**Langilea**  
**(39 urte)**

Aurka nago. Pertsonendako eta naturarendako txarra da proba horiek egitea.



**Belardino Bouzon**  
**Langilea**  
**(64 urte)**

Nire ustez gaizki daude, zeren esaten denez naturari kalte egiten diote, ezta?



**Mila Ramirez**  
**Pentsioduna**  
**(39 urte)**

Guztiondako txarrak direnez gaizki iruditzen zait. Egin behar badituzte, gainera, euren etxean egin ditzatela.



**Ion Ugarte**  
**Ikaslea**  
**(24 urte)**

Frogatuta dago probek eta baita bonba nuklearrek ere munduan kalte handiak eragin dituztela. Horregatik, aurka nago.



**Eva Blanco**  
**Ikaslea**  
**(17 urte)**

Entzun dut zerbait baina ez dut gaia jarraitu. Ez dut horri buruzko iritzirik.

## famili eta gizarte heziketarako zentrua

Gipuzkoa-Donosti kutzaren gizarte-ekintza

Irailak 20, asteazkena: **Bilera informatiboa** arratsaldeko 5etan.


Irailak 21, osteguna: **Matrikulazio epea** zabalduko da.

Zatoz eta informa zaitetz!

Bulego ordutegia: Goizez: 10-12

Arratsaldez: 4-8

Santa Teresa Auzoa, 12 ARRASATE Tfnoa: 79 04 59



## BERGARA PIEL

Larruzko arropak garestiak direlakoan zaude?  
Zatoz gure dendara eta harrিতuta geratuko zara!

Espaloia, 6 • BERGARA • Tfnoa: 76 20 70



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**Gurutze gorria**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**Anbulatorioak**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	76 14 69
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio (945) .....	45 51 16

**Anbulantziak**

Gipuzkoako ambulanziazki .....	45 87 44
--------------------------------	----------

**Udaltzaingoa**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	088

**Ertzaintza**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**Suhiltzaileak**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	088

**Matxurak**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	12 01 62
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**Garraioak**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
Monterrongo liburutegia .....	77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 15**

Egunez eta gauez : Puy, Bergara.  
10ak arte: Ruiz, Maala.

**Larunbata 16**

Egunez eta gauez : Estella, Bergara.  
10ak arte: Amezua, Santamaina.

**Igandea 17**

Egunez eta gauez : Ruiz, Maala.  
10ak arte: Estella, Bergara.

**Astelehena 18**

Egunez eta gauez : Morales, San Andres.  
10ak arte: Mozos, Bergara.

**Asteartea 19**

Egunez eta gauez : Azkoaga, Ferrerías.  
10ak arte: Camacho, Bergara.

**Asteazkena 20**

Egunez eta gauez : Español, Iturriotz.  
10ak arte: Puy, Bergara.

**Osteguna 21**

Egunez eta gauez : Corcuera, Musakola.  
10ak arte: Cuellar, Bergara.

**15 OSTIRALA**

• **ZINEA**

“La tribu de los Brady” 7etan eta 10etan.

• **URIBARRI-ERGUINGO JAIAK**

7etan Buruhandiak Arrasateko txistulariekin. 7etan meza Auzoko hildakoen alde. 7.30etan txikiteoa eta jubilatuentzat luntxa. 11.30etan rock jaialdia, “Brutal Melody”, “Iluna Beltz” eta “Flitter” taldeen eskutik.

• **SAN MARTIN JAIAK BERGARAN**

Arrasaldeko 7etan buruhandiak eta erraldoiak. 10.30etan Tanborradaren irteera Seminarioko patiotik, Udal Musika Bandak lagunduta. 12.30etan Joselu anaiekin dantzaldia San Martin plazan.

**MARTA GOMEZEN ERAKUSKETA**

**Marta Gomezen instalazioak Harresi aretoan irailaren 8tik 17a arte. Ordutegia: eguneroko 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.**

**CC.OO.K ANTOLATUTAKO IKASTAROAK**

Euskera ikastaroa bigarren maila eta ingles ikastaroa bigarren maila hasierako ezagupenekin. Iraupena 100 ordu eta dohainik izango da. Ikastaroaren hasiera irailaren 18an. Izenematea Langile Komisioetako lokalean edo 79 52 60 zenbakira deituta.

**16 LARUNBATA**

• **ZINEA**

“La tribu de los Brady” 5etan. “Dos Policías Rebeldes” 7.30etan eta 10etan.

• **ANDALUZUARREN JAIALDIA HIES EKIMENAREN ALDE**

Al-Andalus taldeak antolatuta Hies Ekimenaren alde Andaluziarren jaialdia Amaia antzokian gaueko 10etan. Sarrera 300 pta.

• **SASKIBALOIA ESKORIATZAKO KIROLDEGIAN**

Arrasateko Urbina Maltzaga eta Burgosko Espolon taldeen arteko norgehiagoka arratsaldeko 6.30etan. Aldi berean ping-pong txapelketa gaztetxoendako.

• **URIBARRI-ERGUINGO JAIAK**

Goizeko 10etan erraldoi eta buruhandiak. 10.30etan atletismoko probak Iturriepiko pistetan. 11etan pilota txapelketa Iturripen. 4etan mus txapelketa. 5etan trialsen erakustaldia, Munduko Espainiako eta Euskadiko txapeladunen parte hartzeaz. 6etan pony, txekor eta basurde jaialdia Olanan zelaian. 11etan Ross Ahizpa orkestrarekin dantzaldia Udalpe plazan.

• **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Suediako “Mögel” eta Iruñako “Mala Fama” taldeen kontzertua Gaztetxean, gaueko 9etan. AGAKOk antolatuta.

• **SAN MARTIN JAIAK BERGARAN**

Goizeko 8.30etan sokamuturra. 11etan meza. 12etan Antzinako abankargazko armekin plater tiraketa Goriako kantina inguruan. 12etan Udal Musika Bandaren kontzertua San Martin plazan. 7.30etan umeen tanborrada. 11etan Beleak taldearekin dantzaldia.

**17 IGANDEA**

• **ZINEA**

“La tribu de los Brady” 5etan. “Dos policías rebeldes” 7.30etan eta 10etan.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Ibilbidea: Oñati, Udana gaina, Legazpia, Deskarga, Bergara eta Arrasate, 49 kilometro. Irteera goizeko 9etan Monterrondik.

• **BESAIDE EGUNA**

10.30etan txalapartarekin bertara hurbiltzen diren mendizaleei harrera. 11etan meza aurtentzen bizia galdu duten mendizaleen omenez. 11.30etan Pako Iriondo Euskal Herriko Mendi Federakuntzako lehendakariaren hitzaldia. 12etan Arrasateko dantzari eta bertsolarien emanaldia. Ordubatean herri bazkaria. 2.30etan Arrasateko trikitalariekin erromeria eta 5.30etan bukaera.

• **URIBARRI-ERGUINGO JAIAK**

Goizeko 10etan Arrasateko txistulariekin diana. 12.45etan Herri kirolak Arimazuriko plazan. Ordubatean Al-Andalus kultur elkartearen dantza taldearen ekitaldia. 7etatik 9.30etara Txinparta taldearekin dantzaldia Arimazuriko plazan eta 10etan azken traka.

• **SAN MARTIN JAIAK BERGARAN**

Goizeko 9etan XXII. pintura lehiaketa. 12etan txakurren salbamenduko ariketak lehengo Zerrajerako orubetan. 7.30etan bikoteen dantza askatuko XI. txapelketa.



**18 ASTELEHENA**

• ZINEA

“Dos policias rebeldes” 7etan eta 9.30etan.

• KONTZENTRAZIOA

“Euskaldun guztiendako askatasuna eta amnistia” lemapean kontzentrazioa Herriko plazan arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko batzordeak antolatuta, Euskal Herria askatu lemapean.

**19 ASTEARTEA**

• ZINEA

“Dos policias rebeldes” 7etan eta 9.30etan.

• LORAMENDI OLERKIAK LIBURUAREN AURKEZPENA ARETXABALETAN

“Loramendi Olerkiak” liburua- ren berrargitarapenaren aurkezpena Aretxabaletako Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan. Loramendi Elkarteak antolatuta.



**ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLAKO OHARRA**

95-96 ikasturtea hastekotan dagoenez iazko ikasleek aldaketarik egitea nahi izanez gero, eskolatik pasa daitezela irailaren 18, 19, 20 eta 21an arratsaldeko 7etatik 8etara. Norbaitek soinua eta panderoa jotzen ikasi nahi badu lokaletik pasa dadila ordu eta egun berdinetan

**MENDI IRTEERA BESAIDEEK ANTOLATUTA**

*Irailaren 24ean Otzaurte-Lizarrausti mendi irteera Besaidek antolatuta. Izenematea irailaren 19, 20 eta 21ean arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan.*

**“GAZTEOK BIZIKLETAN” ARGAZKI LEHIAKETA**

Gazteak bizikletan VI. argazki lehiaketa. Bi kategoriatan egongo da banatuta: A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak eta B) 19-35 urte bitarteko edozein. Gaia: Gazteok bizikletan. Modalitateak: zuri-beltz eta koloretan. Lanak aurkezteko epea urriaren 11an bukatuko da.



**BESAIDE EGUNA**

**Besaide eguna domekan. Goizeko 10.30etatik arratsaldeko 6ak arte ekintza ugari Besaideko zelaietan. Besaide mendizale elkarteak antolatutako eguna.**

**GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA**

Irailaren 18tik urriaren bukaera arte gripearen aurkako txertaketa kanpaina egingo da Arrasaten. 65 urtetik gorakoek, diabetesa dutenek edo bihotzeko gaisotasunak dituztenek har dezakete txertoa. Gripearen aurkako txertoa hartzeko Arrasateko anbulategira jo beharko da goizeko 9etatik eguerdiko ordubatera eta astelehenetik ostiralera.



“EAK Arrasaten izan duen portaera kolpe gogorra izan da guretzat. Konfidantza politikoan haustura bat izan da eta eragina izan dezake orain artean hartutako akordioetan eta etorkizunean har daitezkeenetan”.

**Joseba Egibar**, irailak 9.



“Earen gaurko interesa aurrekoan zuenaren ondoan desberdina bada, gure aldetik ez dago arazorik udal-gobernuan sar daitezzen. Hau gauzatuko balitz, gobernagarritasuna bermatuta egongo litzateke”.

**Joseba Ugalde**, irailak 9.

egin

“Arrasateko zinegotziek erabaki okerra hartu dute, behar bada ez dagoelako harreman onik hirukoa osätzen duten zinegotzien artean”.

**Jose Julian Irizar**, irailak 10.

egin

“Ez dakigu Vallejo eta Oiartzabalekin egingo dugun Lhotserako saiakera. Namtze Bazar-era 15aren inguruan iritsiko ei dira, gutxi gorabehera gurekin batera. Ikusi egin behar elkarrekin topo egiten dugun edo ez, elkarrekin ondo konpontzen garen edo ez, beraiek zer nolako indarrekin datozen...”.

**Alberto Inurrategi**, irailak 13.



## Zein berrikuntza izango du “Bidean” proiektuak?

**H**irugarren urtez “Bidean” proiektuari hasiera eman diogu. Proiektu honetan OHoko ikasketak B ereduan egin dituzten ikasleek eta batxilergoa euskaraz egingo dutenek parte hartzen dute. Gure helburua, ikasle horiek pausu hori ematera motibatzea eta euskara hutsez ikas dezaten animatzea da. Gainera, gazteen artean euskararen erabilpena indartu, gaztetxoeren artean talde kontzientzia bultzatu eta eredu desberdinetan ikasten duten ikaslearen artean desberdintasunak gutxitu nahi ditugu.



**Leire Ezpeleta**

Proiektuaren koordinatzailea

Aurreko urteetan proiektuan parte hartu duten ikasleek goizez euskaltegira joaten ziren euren euskara maila hobetzera, baina aurten ez da horrelakorik izango. Aste honetan Garaion egon da taldea eta aisialdiarekin lotutako ekintza desberdinetan parte hartu du, beti ere euskararen erabilpena helburu izanik. Ekintza berriei dagokienez, gainera, igandekoa aipatu nahi nuke. Hilaren 17an Deba bailarari bira emango diogu bizikletaz eta ekintza honetan proiektuko ikasleek eta 14 urtetik 17 urte arteko beste zenbait gaztek parte hartuko du.

Aurten Institutoko hogeitabi ikasle izan dira “Bidean” en izan direnak. Dakizuen bezala Batxilergo Institutoak eskatzen dio Txaxilipurdiri proiektua gauzatzea. Ikasle horiez gain, euskara hutsez ikasten duten zortzi ikasle eta hiru begirale izan dira taldean.



# ARRASTRO Birziklaia




Erabilitako objektuen berreskurapena: altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinatikoak.  
Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

**BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK  
PREZIO ONENEAN!!**

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresnarik badaukazu dei egin **78 32 88** telefonora eta geuk batuko ditugu.

**Gure ordutegia hurrengoa da:**  
Asteleheneetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara.  
Larunbatetan, goizeko 11etatik 2etara.

**Kalezarra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88**

*Zabaldu berria!*

- Portugaldik ekarritako artikuluak
- Prezio eksklusiboak
- Etxerako, momentuan jatzeko eta eskuz egindako artikuluak

**Olarte, 6 Tfnoa: 79 25 71 • Arrasate**  
**Herriko plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 • Aretxabaleta**



**Ederlan PM agiriaren zain**

Irailaren 24an jakingo da Fagor Ederlanek PM izeneko agiria jasoko duen ala ez. Agiri hori Japoniako elkarte batek ematen du eta enpresa munduan oso garrantzitsua da. Europan enpresa gutxi batzuk dute eta Estatuan batek ere ez.

Orain dela hiru urte hasi zen Ederlan agiria jaso asmoz egin beharreko aldaketak egiten. Joan den ostiralean Japoniako begiraleak izan ziren Ederlanen, azken hiru urte hauetan zer aurreratu den eta nola lan egiten den ikusten.



**Arantzazura erromes ugari**

Mila arrasatear inguru bildu zen domekan Arantzazun urtero egiten den erromesaldian. Horietatik 125 goizean goiz oinez abiatu ziren santutegira eta besteak autoz edo autobusez. Meza nagusia goizeko 11etan izan zen, eta ohiturari jarraituz udalbatzako zinegotzi batzuk meza horretan izan ziren. Jose Mari Astigarraga parrokoak eman zuen meza.

**Gatzagako lasterketa gogorra**

Irteera hartu zuten 96 txirrindulartietatik 23k bukatu zuten Leintz Gatzagan zapatuan burutu zen lasterketa. Gatzaga bi bider igo behar izan zuten eta haize gogorra izan zenez, txirrindulari proba oso gogorra izan zen. Kaiku taldeko Oscar Negretek irabazi zuen. Bigarrena talde bereko Giner Salveran izan zen eta

hirugarrena J.L Herrera.

**Kalteak Monterronen**

Hiru gaztek Monterrongo parkeko jarleku batzuk apurto eta anfiteatroko ezkenatokia hondatu zituzten domeka goizean. Inguruan bizi den baserritar batek gazteak zertan zebiltzan ikusi eta Ertzaintzari deitu zion. Ertzainek gazteei deklarazioa hartu

ondoren gertatukoaren gaineko txostena Bergarara bidali dute. Gazteak arrasatearrak dira eta Udalak zenbatutakoaren arabera, eragindako kalteak 75.000 ptakoak dira.

**Barrikadak Biterin**

Zapatuan barrikadak jarri zituzten Biteri kalean. Kontenedoreak bidean jarri eta su eman zieten.

**JAIOTZAK**

- Ruben Carmona Murillo. 17an.
- Alexander Ugarte Urkizu. 28an.
- Gorka Ugarte Urkizu. 28an.
- Alba Bellido Altuna. 26an.
- Markel Perez Arroniz. Irailaren 1ean.

**EZKONTZAK**

- Andres Gutierrez Aretxaga eta Leire Kortabarria Goñi. 22an. Elizaz.
- Jose Migel Perez Sanchez eta Margarita Frutos Gamito. 29an. Zibilez.
- Carlos Berezibar Andres eta Mari Lurdes Etxebarriarteun Arenaza. Irailaren 2an. Zibilez.

**HILDAKOAK**

- Kasimira Ortueta Izagirre. 26an. 83 urte.
- Aurora Rodriguez Epelde. 31n. 82 urte.
- Juan Antonio Bolinaga Idarrraga. Irailaren 1ean. 28 urte.
- Esteban Etxabe Iturbe. 6an. 90 urte.
- Agurne Etxebarria Uribetxebarria. 6an. 24 urte.




**Parques y Jardines**

**Parke eta lorategien sorkuntza.**  
**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**  
**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)





\* Mikel Arana

## Besaide eguna

**U**da atzean geratzen hasi zaigu oroitzapenez beteta, eta udazkena ate joka dabil. Zabal diezaiogun leihoak urtaro berri honi eta goza ditzagun udazkenean naturak eskaintzen dizkigun berezitasunekin, hala nola, hostoen kolore aldaketekin, txorien paseekin, hego haize astoratuekin eta... Garai honetan eta azken urtetan modura, irailko hirugarren domekan ospatzen dugu Besaide eguna. Aurten Besaide mendizale elkarteari egokitu zaio antolatzaile lana, Euskal Herriko mendi federakuntzaren, Aramaio eta Elorrioko mendizale elkartearen laguntza.

Zer da Besaide Eguna?

Bueno, printzipioz Besaide geografiaren toki bat da, Euskal Herriko hiru probintzi elkartzaren diren puntua (Arabara, Gipuzkoa, Bizkaia), Uda-

la auzotik gertu geratzen dena (Udalaitz azpian). Bertan Euskal Herriko mendizaleok elkartzen gara (hegoaldekoak eta iparraldekoak) eta ekintza batzuen bidez gogoratzen ditugu urtean zehar mendian istripuz hil direnak. Seinale ezin hobea litzateke egun horretan elkartu eta inor ez gogoratzea. Nire datuen arabera aurten 12 lagun hil dira istripuz, azken urteko zifra beretsua. Istripuei buruz berba asko egiten da eta medio guztiak jarri beharko ditugu gerta ez daitezen (heziketa, ikastaro...) baina bi gauza aipatu nahi nituzke istri-

.....  
*“Bailarako mendizale guztiak animatu nahi ditut Besaidera urrera daitezen”*

puak eta komunikabideak uztartuz:

- Arrisku handiko igoretan dabiltzanez gain, mendian milaka lagun ikus genitzake.

- Urrutiko mendiak zorgarriak izan daitezke, baina Euskal Herrian daudenak ere ederrak dira.

Amaitzeko bailarako mendizale guztiak animatu nahi ditut Besaidera urrera daitezen, kontuan harturik egun osoko egitaraua presatatu dugula. Aprobetxatu nahi dut parada hau, Besaide inguruko eta orokorrean Euskal Herri osoko hiru arazo larri aipatzeko:

- Zuhaitzen birlandaketak
- Pistak nonahi eta noiznahi.
- Abiadura Handiko Trenaren proiektua.

Eman diezaiogun irtenbidea natura kontuan harturik.

\* **BESAIDEKO LEHENDAKARIA**

## USTEAK USTE

### LEIKEDA

Astehenean ekin diote gaztetxoek kurtsoari. Lehen aldiz doazenak orduan hasiko dira euskara batua ikasten, beraiekin Arrasateko euskaria daramatela. UBLra heldu orduko Euskara Gaitasun Agiria eskuratu ahal izatetik ez dira urrun ibiliko. Mondragoeko euskariaren ezagutzak berriz, hizkera mintzatuari dagokionean, egin al du abantailarik tarte horretan? Okerrak zuzendu, aditzak ondo erabili... Zeure inguruan begira dezakezu edo adinez gaztea bazara galde egiozu zeure buruari. Irakasleek beraiek ere neska-mutilen hizkera mintzatu itxurosoa izateko beste menperatzen al dute bertako euskaria?

**Gotzon Garateren esanetan euskararik bikainena den honek (Arrasate-Oñati inguruko bizkaiera, belarriendako beste euskalki batzu goxoagoak badira ere), norberaren etxeaz eta lagunarteaz gain erreferentziaren bat beharko luke akatsak zuzenduko eta ganoraz jarduteko. Zentzu honetan herriko komunikabide hirukoa (eskuartearen duzun aldizkari hau, telebista eta irratia) tresna aproposa izan leikeda. Kurtso berri baten aurrean.**

ANDER ETXEBERRIA

**TXOKO TABERNA**  
 Gure berezitasunak  
 pintxo eta  
 mokau gozoak

Elektroinjekzio Zerbitzua 

**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
 ARRASATE

**IBARRA**  
**Garajea S.L.**

 EBRO  
 NISSAN

Garajea  
 Automobil-konponketa  
 Garabi zerbitzua





Irailaren 22an egingo da Udal plenoa.

## Gobernagarritasuna EAko zinegotzien erabakiaren zain

HB eta EAekin gobernuan sartzea debekatu eta expedientea zabaldu diete alderdiko exekutibak EAko zinegotziei. Martitzenean hartu zuen neurria Gipuzkoako EAko zuzendaritzak, beraz, pentsa daiteke Arrasateko zinegotziek gobernu taldean parte hartzeko aukera ez dutela baztertu. Hala ere, EAko zinegotziek oraindik ez dute gobernuan sartzeko agiria sinatu. Hasiera batean astelheanean sinatuko zutela uste bazen ere, erabakiak sortu duen lurrikaragatik akaso, zinegotziak isildu egin dira eta ez dute hartuko duten bidearen berri eman.

Gobernuan sartuko zirela baieztatzerakoan bakarrik hitzegin zuten EAko zinegotziek, "Udalak irtenbide bat eskatzen duelako eta hirukoak aurrera egitea lortu ez duelako sartuko gara gobernuan" azaldu zuen orain dela astebete Isabel Gallastegik. Orduetik jendaurreko iritzirik ez.

### Plenoa 22an

Herri Batasunak eta Ezker Batuak gober-

nu batzordean biltzeari ekin diote aste honetan. Astelhekenoa opor osteko lehena izan zen eta bertan, hilaren 22an plenoa egitea finkatu zen.

Egunotan hala ere, Udaleko gaiak baino zerbait gehiago eztabaidatzen ari dira bi alderdiak. J. Ugaldereen esanetan "gure programaren puntu batzuk beteko direla ziurtatu nahi dugu eta horregatik, proposamen batzuk egin dizkiogu HBri. Ingurugiro eta Enplegurako Batzordeak era daitezen, autobus urbanoa jarri dadin eta erreferendumak egiteko araudia zehazteko nahia azaldu diogu. Horietako batzuk HBren programan azaltzen direnez, ez dut uste akordio batera heltzea zaila izango denik". Ezker Batuak zinegotziaren berbetan, "hirukoa hilda dago eta ez du ahalmenik, baina erabakia hartzea eskatzen duten gaiak daudenez, Enpresa Ekintzetarako Zentroaren erakuntzarena adibidez, hiru alderdi horiekin negoziatzea eta plenora eramatea ere eskatu diogu HBri".

### Alkateen bilera

Maltzaga-Urbina ardatzaren gainean hitzegiteko bilera izan zuten Deba Bai-larako hamasei udalerritako alkateek asteartan. Alkateen iritziz ardatza eraikitzeke asmoa geldirik dago eta horregatik, Eusko Jaurlaritzari eta Diputazioei ardatza eraikitzen hasteko pausuak ematea eskatu behar zaie.

### E. I.ren hitzarmena

Arrasateko Udalak hitzarmena sinatu du Eusko Ikaskuntzarekin. Hitzarmen horren arabera Udalak 700.000 pezeta emango dizkio euskal elkarteari, horrek Arrasateko artxiboari buruzko hiru liburu argitaratu ditzan.

### Eraketa batzarra

Seguruenik hilaren 20an egingo da Mankomunitatearen Eraketa Batzarra. Hasieran hilaren 13an egitea aurrikusi bazen ere, ordezkariak dutenei data hori txarto zetorkiela eta atzeratu egin behar izan da.

### Uharkapeko horma

Etxebizitzetxe eusteko Uharkapen egin den horma mugitzen den frogatuko du Labein enpresak. Itxura denez mendi-hegala oraindik zertxobait mugitzen da, baina ez bi milimetro baino gehiago. Labeinek zehatz-mehatz aztertuko du mugimendua zenbatekoa den.

*ESLU*  
**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

*lurrindegia* *perfumeria*  
**ZARRAOA**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4  
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE



# Ingurugiroari buruzko planaren aurkezpenean 30 enpresa izan ziren

Deba Garaiko 30 enpresa hurbildu ziren inguruko lantegietan Jaurlaritzak hasi nahi duen planaren aurkezpenera, horietatik zortzi Arrasatekoak. Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailaren nahia, produkzio prozesuak garbiago bihurtzeko egitasmoa hastea da.

Mankomunitateak hala ere, 90 lantegiri egin zien asteazkeneko aurkezpen ekitaldira joateko gonbidapena. Cristina Iraolagoitia Mankomunitateko teknikariaren iritziz, "inguruko enpresen erantzuna normala izan da, Sasietako Mankomunitatean ere emaitza antzerakoa izan zuten eta". Bileran, gainera, Deba Garaiko udalerrietako alkateak eta indus-



Oñatin aurkeztu zuten plana Patxi Ormazabalak, Ingurugiro Sailburuak eta Esher Larrañagak, Sailburuordeak.

trialdetako arduradunak izan ziren.

Aurkezpenean planaren berri eman zien Esther Larrañagak, Ingurugiro Sailburuordeak. Deba Garaian hon-

dakinen murrizketarako plana ezartzea beharrezkoa dela esan zuen. Industria eta ingurugiroa bateragarriak direla ere gogoratu zien enpresariei eta ondoren, planak dituen fase-

en eta Jaurlaritzaren laguntzen berri eman zien. Larrañagak azaldu zuenez, "lehen-dabizi beharrezkoa da eko-auditoria bat egitea eta horretarako Jaurlaritzak dirulaguntza ematen du. Hortik ateratzen diren emaitzekin ikusiko da ondoren zein neurri hartu".

Ekoauditoria egiteak gutxi gorabehera urtebete irauten du eta neurriak ezartzeko beste lau behar izaten dira.

Egitasmoaren berri izan ostean, enpresek gaurko erabaki behar zuten planean sartu edo ez. Eskerak egiteko epea gaur eguerdian (ostira-lean) bukatu da. Aurrez Urdai-bain ezarri da plana eta Larrañagaren esanetan, emaitza onak izan ditu.

## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**





Joan den udazkenean jarri zen ikusgai Egitamuaren aurrelaburpena.

## Fase berrian sartuko da Udal Egitamu Orokorra

Astelehenean hasiko dira Hirigintzako teknikoak, Egitamu Orokorren 2. txostena izango dena burutzen. Sei hilabetetan agiria bukatzea espero dute teknikoek. Behin behineko onarpena jaso ondoren, berriz ere jendearean jarriko da arrasatearrek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Lehen aldiz joan den udazkenean jarri zen ikusgai Egitamuaren aurrelaburpena. Orduan onartutako iradokizunekin eta plenoak ezarritako irizpide eta helburuekin, bigarren agiria egingo da orain. Plenoak finka-

tutako irizpideen artean, Amateko lurrak industrierako uztea erabaki zuen udalbatzak. Horrez gain, Zerrajerako zati batean babes ofizialeko etxebizitzak egitea eta Gelmako orubea industrierako utzi beharrean, hor ere babes ofizialeko etxeak egitea onartu zen. Industria erakarri asmoz, gainera, industrierako guneetan lankidetzeta sistema ezartzea erabaki zen. Era horretan, Udalak gestionatuko ditu gune horiek eta lantegiren bat jarri nahi dutenek baimena jasotzeko aukera beherala izango dute.

### Garagartzako bidea konpondu

Garagartzako bidea zabaldu eta hobetzeko proiektua onartu du Gipuzkoako Diputazioak. Garagartzatik Arabako mugara dagoen tartea konponduko da, guztira bi kilometro inguru. Proiektua onartu ondoren, Diputazioak lehiaketara aterako du obra eta urte amaierarako adjudikatuko da. 260 milioi gastatzea aurrakusi du Diputazioak.

### Lau Bideri buruzko ikerketa

Udalak ez du erabaki oraindik zein enpresak egingo duen Lau Bideko aparkalekuari buruzko marketing azterketa. Parking-a zergatik ez den erabiltzen eta arazo horri irtenbidea emateko zer egin daitekeen aztertu nahi du Udalak. Bi enpresekin harremanetan ari da Udala eta ikerketaren ardura zeini eman erabakiko du laster. Lau Bideko aparkalekua egunero goizeko 8etatik 10etara egoten da zabalik. Ostiraletan eta zapatutan, goizeko 8etatik ordubatera eta domeketan arratsaldeko 3etatik 10etara.




# URONDO

eletrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76  
ARRASATE





**Bisita ugari izan da gurean azken boladan. Asteartean Txatxilipurdi udalekutako gaztetxoek etorri ziren eta asteazkenean Jarduneko Atxintxika**

**programaren barruan Euskara lantzen ari den neska-mutil talde bat. Azalpenak entzun eta ikusitakoak ikusi ondoren gustora aldegin zuten.**

**Extremadura eguna** ospatu zuten Corazón de Encina elkartekoek asteburkaeran. Zapatuan Landako urtegia Extremeñoen topaleku bihurtu zen eta bertan kirol txapelketak, lehiaketak eta bazkari gozoa izan zuten. Domekan Arrasaten elkartu ziren jai giroan egun pasa egiteko.



**Ines Osinaga**, 13 urteko soinu-jolea eta **Naiara Okina** 13 urteko panderojolea txapel-dun izan ziren Elorrioren egin zen 14 urte beherako "Trikilari Gazteen txapelketan." Arrasateko bikote hau lehiaketa batera aurkezten den bigarren aldia da eta iaz bezala txapela eta garaikurra ekarri dituzte etxera. Zorionak bikote!



**• ARTEA •**  
 Eskulanak eta lientzoak  
**ENMARKAZIOAK**  
 Laminak, Izpiluak,  
 Margoak  
 Ferrerías, 11 Tfnoa: 77 10 95  
 ARRASATE

**OLIVEROS DOKTOREA**  
**PSIKIATRA**  
 Irailetik aurrera kontsulta beste toki batera pasatuko da.  
 Helbide berria:  
**CONSULTORIO MEDICO OLARTE**  
 Olarte kalea, 43 behea  
 Tfnoak: 79 81 00 / 79 81 11  
 Arrasate

**IBARRA**  
**Garajea S.L.**  
  
**EBRO NISSAN**  
 Garajea  
 Automobil-konponketa  
 Garabi zerbitzua

**FELIPE**  
**MADINA**  
**ZURAK**  
 Zarugalde, 40 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 13 78



**Garazik eta Nereak** eskuartean duten **tomatea Hondarribia** kaleko ortu batean jasotakoa da. **Tomate gorri eta eder horrek 1.200kgmko pisua du.** Galanta benetan eta entsaladan jateko primerakoa, **duda barik!**



EPELDE

**Irakusne Diaz de Gue-reñu** eta **Fernando Etxe-barria** arrasatearrak ekaina-

ren 6an ezkondu ziren. **Aitor Antxia** eta **Goyi** Mendo atxabaltarrak ekainaren 17an



EPELDE

Dorletan eta ezkon-bidaian Estatu Batuetan izan dira. Zorionak!

## IZEN PROPIOAK

● **Jon Iñaki Lasa** 32 urteko arrasatearrak eta Pandora bere txakurrak PTR modalitateko Espainiako txapelketan hartuko dute parte irailaren 23an. Pandora belgiar artzaia arrazako txakurra da eta Euskadiko ordezkari bakarra izango da Madrilen burutuko den txapelketan.

● **Jon Antxia, Ane Loidi** eta **Jon Sarasua** atxabaltarrek "Aretxabale-tarako idazkera liburutxo" aurkeztu zuten astelehenean. Loramendi Elkartearen ekimenez plazaratu den estilo liburuan Aretxabale-tako hizkeran zelán idatzi behar den eta herrian erabiltzen diren berba nagusien hiztegia ageri da.

● **Felix** eta **Alberto Iñurrategi** mendizale atxabaltarrak Cho Oyuko tontorrera (8.201m) heldu ziren ohiko bidetik astelehenean arratsaldeko 13.45etan. Astebukaeran biak Juanito Oiarzabal eta Juan Vallejo arabarrekin batera, Lhotseko (8.516 m) igoerari ekingo diote.

### S. CARRASCAL S.L.

#### Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tfnoa /FAX: 79 01 82

### Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

#### SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 BERGARA  
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

### ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



# “Eskulanak”

## Zure gaitasun izkutua aurkitzeko modua

— Nola sortu zen Eskulanak?

— Kezka askodun pertsona naiz eta lan desberdinetan aritu ondoren, Madrilgo feria batean egin nuen topo mundu honekin. Eskulanen mundua, Estatuarekin alderatuta, %3an besterik ez zegoen sartuta Euskadin. Tailerra esperientzia berria da Arrasaten.

— Zer da Eskulanak?

— Denda-tailer bat da, eskulanak egiteko edozein motako produktu gordinean aurki daitekeena alegia. Bertan norberak egin ditzake dekorazio artistiko lanak eta aldi berean laguntza izan.

Tailerrak trebetasun berriak aurkitzeko eta lagun berriak egiteko aukera eskaintzen du eta bertara datorren jendearen artean sortzen den giroa sinestezi-na da. Lana hain da lasaia terapia gisa ere erabiltzen dela.

Material bera erabiliz makina bat teknika landu daitezke: erretxinan, egurrean, pastan, porzelanan, hiru dimentsioko laminetan, erliebedun laminetan, paper pastan, esmaltean...

— Zer nolako bezeroak sartzen dira Eskulanak-en?

— Ez dago itxura bakarreko bezerorik. Edozeinek egin ditzake eskulanak. Gainera, eskulanek lasaitasunean, sormenean eta terapeutikan eragina dutenez, partikularrez gain, bezero ditut ikastetxeak, psikiatrikoak, ospitalak eta elkarteak. Bakoitzak dugun gaitasuna eta kreatibitatea lantzeko aproposa da.



Silvia Paez, “Eskulanak”eko arduraduna.

— Eskulanetan ere modak daude?

— Modak eta garaiak daude. Adibidez, Gabonak gertu daudenez orain erlijio motibo asko eskatzen dizkirate, bereziki belenak. Gainera, opariak egiteko erabil daitezke eskulanak, bakoitzak egindako lanak balore



Tailerrean giro atseginean egiten dute beraien lanak ikastaroko partehartzaileak.

gehigarria dutelarik.

Bestalde, poliuretano erretxina asko erabiltzen ari da, merkea izanda aukera eta emaitza harrigarriak eskaintzen ditu eta.

— Zer aholkatuko zenioke eskulanetan hasten den edonori?

— Garrantzitsuen lanean hasi eta gozatzea dela esango nioke. Behin hasi eta gero beti aurkitzen da bakoitzaren benetako bidea.

“Eskulanak”

Foruen Plaza, 1  
(San Andres auzoa)  
Tfnoa: 79 86 49



Teknika desberdinak lantzeko materiala aurki daiteke “Eskulanak”-en bertan.





Aurkitutako hezurdurak eta arropak erabiltzen dira desagertuen identifikaziorako.

# Guatemala

## Egia eta justiziaren aldeko lana

Karmele Perez

**Bi arrasatear pare bat hilabetez lanean aritu dira Guatemalako hilerri klandestino batean. Han ikusitakoaren berri dakar ondorengo lerroetan Karmele Perezek.**

**G**uatemalan giza-eskubideen aurka burututako milaka kasuen artean, istorio honetan Peten departamentuko Las Dos Erres parzelamendua 1982ko abenduaren 5, 6 eta 7 bitartean nola desagertarazi zuten kontatzen da.

1995eko uztailaren 30eko goizeko hamaikak ziren. Las Cruces herriskako gizon, emakume zein haurrak burumakur zihoazen 50 hilkutzaren atzetik. Denboraren iraganak eta saminak beldurrak baino pisu gehiago eduki dutenean bakarrik izan da posible gerraren erdian suntsitutako herri baten oinazea ezagutzea. 90 zentimetroko diametroa eta 12,20 metroko sakonera zuen putzu batera, 162 pertsona bota zituzten. Ezin izan ziren gorpu guztiak osatu eta hamabost bakarrik identifikatu zituzten. Las Dos Erres-en historia, garai hartan emandako "tierra arrasada" deritzan politikaren adibide bizi eta izu-

garrietako bat da.

### BESTE ESKUALDE BATZUTATIK ETORRIAK

Orlandok dioenez, bera bezala nekazari asko etorri zen garai hartan beste departamentu batzutatik lantzeko lurren bila. 45 familiek osatzen zuten 1978an eratu zen herri hau. Bere izena bertara iritsitako lehenengo bi biztanleek eman zioten: **Aquino Ruano** eta **Marcos Reyesek**. Bertako biztanleek oihaneko sastrakaren aurka borrokatuz lortu eta landu zituzten lur haiek. **Ruano** ura ateratzeko putzu bat egin zuen, eta gauza bera **Juan Arevalok**, baina 12 m. lurrean sakondu ondoren ez zuen

urik aurkitu, horregatik putzu lehorra deitzen zioten.

Gogoratzen du triskantza horiek **Lucas Garcia** generalaren agindupean hasi zirela. 82an estatu kolpe baten ondorioz **Rios Montt** boterera iritsi zenean, hasieran optimismoz hartu zutela dio, generala izan arren ebangelikoa zelako eta uste zuten gizon erlijioso batek bakea ekarriko zuela.

### IKARA DOS ERRES-EN

Orlandoren hitzetan, igandean jende armatuz betetako kamioiak iritsi ziren herriskara. Orduetik, bidea moztuta gelditu zen: ezin zen bertatik irteten, ezta bertara sartu ere. Astelehenean Las Cruces-eko





Zuloan aurkitutako gorpuak kaxetan.



Identifikaziorako gorpuak jende aurrean jarri ziren.

bizilagunak gerta zitekeenaz izututa, bertako destakamentuko buru zen **Carias Lopez** subtenienteari zerbaitegin zezala eskatu zioten. Baina berak esan zien ez arduratzeko, “ejerzittoa garbiketa txiki bat egiten baino ez dabil”. Asteartean tiroketa entzuten hasi zen.

Ihes egin ahal izan zuen 11 urteko mutiko batek gertatutakoa kontatu ahal izan zuen. “Igande gauean zibilez jantzita, larruzko bota militarrekin eta armatuta iritsi ziren gizon batzuk herriskara. Jendea bildu zuten mitin bat egiteko eta jatekoa eskatu zuten gerrilakoak zirela esanaz. Eta eman egin zitzaaien”. Biztanlego zibila bisuren artean aurkitzen zen, ejerzitoarena eta gerrilarena. Hori zela eta, edozein talde armatu iritsi eta jatekoa eskatzen zieten eman egiten zioten eta kitto. “Gau horretan emakume eta neskatxa guztiak bortxatu zituzten mendi aldean, gizonak lotuta utziz. Egun bateko tortura eta oinazearen ondoren, hil egin zituzten”.



Mundu osoan ezagutarazi nahi da Guatemalan gertatzen dena.


**EGIARANZKO PROZESUA**

Beldurrak isilik eduki du jendea 12 urtez. Baina beldurraren garaiari amaiera eman behar zaiola eta, 1994ko otsailan jaso zuen FAMDEGUAK (Guatemalako Atxilotu eta Desagertuen Senideek osatzen duten elkarteetako bat) hilerri horri buruzko salaketa eta uztailan hasi zen “lotsaren

putzua” deitu izan den honen exhumazioa. Lau metro zultzea nahikoa izan zen lehen arrastoak aurkitzeko. Baina eguraldi txarraren eraginez bertan behera utzi zuten lana arduradun ziren antropologo forense argentinarek. 13 hezurdura aurkitu zituzten ordurako. FAMDEGUAKo kideek tarte horretan zenbait heriotz mehatxu ere jaso zituz-

ten. 95eko maiatzean berrekin zitzaion lanari. Las Cruces-en gauero tiro hotsak entzuten ziren. Helburua, elkarrekide zein biztanlegoaren beldurra eragitea. Badaezpada, polizia bat zaindaregunero hezurak gordetzen zituen etxearen aurrean. Uztailaren 15ean bukatutzat eman zen lana. Ateratakoen artean, 24 emakume, 64 gizon eta 74





Brigadista arrasatearra hezurrak garbitzen.

identifikatu ezinako sexukoak, horietako 67 hamabi urte baino gutxiagoko haurrak.

**Aura Elena Farfan** FAMDEGUAKo lehendakariak, senide eta hildakoen

aurrean borrokan jarraitzeko erantzukizuna dutela dio. Bere hitzetan, ezin da bakeaz hitzegin justiziarik ez bada go eta horretarako Ministeritza Publikoaren babes eta laguntza behar dute. Inpunitatearen mantua ezin haustea gogorra da beraientzat, baina aurrera jarraitzeko asmo tinkoa adierazi du.

Egun, errudunen aurkako prozesua prestatzen ari da. Epaiketa burutuz gero, lekukoaren aurrean orduko ardura-dunak aurkeztu beharko dira: **Carias Lopez** subtenienteak, bertako destakamentu militarreko burua; **Lopez Fuentes**, Defentsako Estatu Nagusiko burua; **Mejia Victores**, Defentsako ministraria; eta **Rios Montt**, Estatu burua.

Datorren astean aurkez-

tuko dira lekukoak Ministeritza Publikoan beraien testigantza eman eta errudunak izendatzeko. Giza-Eskubideen bulegoaren babespean eta **Franc Larrue** abokatu famatuaren eskutik ari dira lanean. Heriotz hauek inpunitatean gelditu ez daitezten, errudunentzat epaiketa eta zigorra eskatzen du FAMDEGUAK. Eta Estatuak zenbaitetan planteatu duen amnistia, barkamena eta ahanzturari uko egiten dio.

Gaur, lasaitasuna da nagusi Las Cruces-en. Gauetan ez da jada tirorik entzuten eta bertako biztanleak ikararen atzaparretatik askatzen ari direla dirudi. Bizi izan zuten tragedia jende askok ezagutu izanak sortzen duen segurtasuna sentitzen hasi dira.



Lotsaren putzua.

## Istorio honen helburua

Nekez pentsa zezakeen Juan Arevalok bere hilobia zulatzen ari zenik. Nekez pentsa zezaketen Dos Erres herris-kakoek zein halatsu desagertarazi zituzten gainontzeko 400 bat herriek horrela amaituko zutenik. Baina Orlandok berak esaten duen bezala, "argi berri bat piztu zaio, egiaren argia. Gezurraren eta isiltasun ikaratiaren garaia amaitu da. Bada ordua hitzegiteko, errudunak epaitzeko..." Adoretu eta pozik dago azken urteotako bere helburu eta grina lortu duelako: izkutuan zegoena argitaratzea. Eta horixe da guri eskatu diguten gauza bakarra: ezkutuan zegoena eta ikusi duguna beraien mugetatik kanpo lau haizetara zabal dezagula. Horixe istorio honen helburua.



# Igerilariak jende premian talde sendoa osatzeko

Arrasateko 11 igerilarik Espainiako aletadun txapelketan hartu dute parte aste-bukaera honetan: Aritz Arrieta, Ander Corcuera, Iñaki Fuente, Gotzon Olarte, Ibai Orruño, Iban Sanchez, Amaia Albaro, Ramon Dacosta, Rosa Dacosta, Esther Gomez eta Maider Murua. Aipatutako igerilariak Pedro Belinchon entrenatzailarekin batera Almerian izan dira. Guztiek euren denbora hobetzea lortu dute eta domina barik etorri badira ere, entrenatzailea pozik dago igerilariak erakutsitako mailarekin.



Espainiako Txapelketan parte hartu zuten asteburuan.

## - Zer nolako txapelketa egin duzue?

- Ez gara aurreneko postuetan ibili, ez dugu dominarik lortu, baina zegoen maila ikusita lan bikaina egin dugula esan behar dut. Igerilari bik 4. geratzea lortu dute eta gainontzekoek denbora hobetu dute. Lorpen hauek garrantzitsuak dira guretzat eta aurrera jarraitzeko indarra ematen digute.

## - Maila handia aurkitu duzue txapelketan?

- Bagenekien maila ona egongo zena. Aletadun igeriketa kirol olinpiko izendatu dute eta jendea ondo prestatu da, talde sendoak ikusten dira. Kataluniako taldeak beti bezala oso indartsu ikusi ditut eta Euskadi mailan Tolosa eta Ordizia. Azken urteetan Nafarroa, Balear eta Albacete taldeek izan duten bilakaera aipatzekoa da eta txapelketan argi geratu da hobekuntza.

## -Epaileekin arazoak egon

## zirela jakin dugu. Zer gertatu zen?

- Epaile gehienak kataluniarrak ziren eta euren alde egin zuten latsa barik. Igeriketan epaileen lana erabakiorra da eta txarto badabilza kalteuenak igerilariak dira. Tolosako taldea bigarren geratzeko moduan zegoen, baina epaileen erabakien eraginez laugarren tokiarekin konformatu behar izan zuen.

## - Gaur egun zenbat igerilari daude Arrasateko taldean?

- Klasika eta aletadun modalitateetan 35 igerilari daude guztira eta bi entrenatzaile, Arantza eta ni neu.

## - Arrasaten izen handiko igerilariak egon dira, gaur egun zer?

- Maila asko jeitsi da. Orain 6 bat urte igerilari onak zeuden, batzuk Estatuko eta Europako txapelketetan hartzen zuten parte eta harrobia sendoa zen. Azken urteotan, berriz, jende gutxi dago tal-

dean eta horrela ezin zaio mailari eutsi.

## - Arazo handiena beraz, jende falta da?

- Jende falta batetik eta material falta bestetik. Igeriketako materiala oso garestia da eta taldean ez dago dirurik material guztia erosteko. Monoaleta batek zortzi/bederatz mila pezeta balio dezake eta oxigeno bonbonak beste horrenbeste. Dena dela, garbi utzi nahi dut hasteko materiala badagoela taldean. Norbait interesatuta balego, etortzea baino ez dauka.

## - Zeintzuk dira zuen asmoak aurtengo denboraldirako?

- Taldearen helburua jende gehiago izatea, harrobi sendoa lortzea eta nire asmoa entrenatzaile moduan iazko lana hobetzea. Iaz Euskadiko txapelkunorde geratu ginen Tolosaren atzetik eta aurtun txapela eskuratzea gustatuko litzaiguke. Bestetik, Espainiako txapelketara joan ahal

izateko gutxieneko denborak lortu nahi ditugu. Orain Santamas txapelketa eta Ordiziako aletadun modalitatekoa prestatzen hasiko gara.

## - Igeriketa klasikoa eta aletadunen artean ze desberdintasun dago?

- Estiloa, abiadura... dena da desberdina. Igeriketa klasikoan eskuak eta hankak erabili eta lantzen dira. Aletarekin eskuak ia ez dira erabiltzen eta gerriarekin egiten da lana. Desberdinak izan badira, baina klasikoa bezain samurra da aletarekin igerian egitea.

## - Noiz eta non entrenatzen duzue?


- Musakolako igerilekuan egunero arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara. Aipatu dugunez taldea jende premian dago, beraz, ondo pasatu eta kirola egin nahi duzenoi konbitea luzatzen dizuet beldur barik etor zaitezten. Gure helburua kirola eginez gozatzea da.



# Amerikar berria Urbina Maltzaga taldera

Clinton Holtz amerikarrak ordezkatu du J.C Harris Urbina Maltzaga taldean. Asteazken eguerdian taldeko ordezkariak eman zuten jakitera Harrisen baja. Antza denez, taldea indartzeko Samaniego entrena tzaileak pibot petoa nahi zuen, erreboteak hartu eta puntu ugari lortzeko gauza izango zena. Hori guztia lortzeko Indianako jokalaria ekarri zuten, baina aurre-denboraldian egin dioten frogetan, jokalaria pibota baino hegalekoa dela ikusi eta taldetik kanpo uztea erabaki dute. Hala ere, Harris ordezkatzeko bada dagoneko amerikar bat; Clinton Holtz 25 urte eta 2,12 altuerako jokalaria. Holtz pibota da eta Canadako Unibertsitatean egin ditu ikasketak. Jokalari amerikar zuri hori ostiralean etorriko da Arrasatera.

Bestalde Iñaki Gomez Ourense taldeko jokalaria dela kaleratu da hainbat komunikabideetan. Urbina Maltzagako ordezkariak



Harris ez du gure artean jarraituko.

aipatu dutenez eurek ez dakite ezer gai horren gainean eta Basconiara deitu dute-nean, jokalaria Urbina Maltzagakoa dela esan diete. Baina arazoa ez da hor bukatzen, Ourense taldeak jokariaren ordezkariarekin eta Basconiarekin akordio batera heldu dela aitortu du. Hori egia balitz, Arrasateko taldeak jokalaria garrantzitsua galduko luke eta era berean kolokan jarri daiteke Urbina Maltzagak eta Basconiak elkarlanerako sinatuta duten akordioa. Nolanahi ere,

Arrasateko ordezkaria baikor da auzi honen aurrean eta jokalaria herrian geratu dela ziurtatu du.

## Abonatu kanpaina

Denboraldi ofiziala hasi baino lehen Arrasateko taldeak beste bi neurketa jokatu ditu. Irailaren 16an Burgosko Espolon taldea izango du aurkari Eskoriatzako kiroldegian eta 17an Frantziako talde baten kontra neurtuko ditu indarrak. Irailaren 23an berriz, 95-96 denboraldia hasiko da eta Arrasateko taldeak Aska-tuaken kontra jokatu du.

Astelehenean, Urbina Maltzaga eta Taugres Basconia izan genituen aurrez aurre Iturripen eta talde gasteiztarrek merezimendu osoz 42 eta 92 irabazi zuen.

Aste honetan, ostera, abonatu kanpaina zabaldu du Urbina Maltzaga taldeak. Abonoen prezioak honako hauek dira: seniorrak 8.000 pta, jubenilak 14 urtetik 18 urte bitartekoak 4.000 pta eta infantilak 2.000 pta.

## Santurtzi eta Mondra nor baino nor

3. mailako Mondrak Santurtziren kontra jokatu du denboraldiko hirugarren neurketa larunbatean arratsaldeko 6etan. Mondrak orain arte bi neurketa jokatu ditu Amorebieta eta Ondarroako Aurrearen kontra, biak galduz. Larunbatean Zivojevicen mutilek denboraldiko lehen garaipena eta lehen puntuak lortzeko aukera izango dute. Talde bizkaitarrak hiru puntu ditu eta sailkapeneko 11. tokian dago, arrasatearrak puntu barik 18. daude.

## Zaldibar futbito txapelketa

Zaldibar 95-96 txapelketa Maritxu Kajoi Biharamunean hasiko da urtero bezala eta bertan parte hartu nahi duten taldeek datorren martitzenean irailaren 19an informazioa jasoteko bilera izango dute Monterronen arratsaldeko 7etan. Bileran txapelketaren zehaztasunak eta berritasunak emango dituzte antolatzaileek.




**YOSU HERMIK**  
VENTANAS AISLANTES s.l.

*Kalitate gorena leihoetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



## ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLAK

aukera hauek eskaintzen dizkizu:


- Magisteritzarako titulu berriak:
  - HAUR HEZKUNTZA
  - INGELESA
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan...

*Informazioa:*  
IRAKASLE ESKOLA  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)  
Tel.: (943) 71 41 57

**1995-96**  
ikasturterako  
matrikulazio-epea  
zabalik dago.




# ORDUA DA!



**Carlos Murillo**, 26 urteko arrasatearra  
(Kajoiko tabernaria)

*"Nire lana dela eta ez nuen denbora askorik. Horrela, euskara ikasteko IKASTXIP programari esker nire euskara maila hobetzea lortu dut. 6 bilabete inguru aritu nintzen IKASTXIPEkin eta ikasi dudanak askorako balio dit, bai nire lanerako eta baita kaleko erlazioetarako ere".*




**Kontxi Tamayo**, 33 urteko mexikarra  
(Dermatologa)

*"Hiru urte terdi daramatzat Arrasaten eta bertako obiturak eta kultura ezagutzeko beharrezkotzat jotzen dut euskara ikastea. Udal-Euskategian 3 urtetan aritu naiz ikasten eta orain senarrarekin eta familiarekin euskaraz hitzegiteko gai naiz. Horrek oso ondo sentiarazten nau".*




**Andoni Villar**, 32 urteko  
arrasatearra  
(Eskola Politekniko-ko irakaslea)

*"Nire ustez gaur egun oso garrantzitsua da euskaraz alfabetatzea. Besaide taldekoa nintzanean, beharrezkoa nuen alfabetatua izatea edozein mediori informazioa bidaltzeko edo informazioa biltzeko. Gainera, irakaslea izateak ere bultzatu ninduen Udal Euskaltegira joateko, hitzegitea ez delako nabikoa".*



**Inaxio Garro**, 31 urteko  
aretxabaltarra  
(Euskadiko Kutxako langilea)

*"Euskara gizarteratzeko, beharrezko dugu lanbarremanetan ere euskara erabiltzea. Kontua ez da jakitea, erabiltzea baizik. Ni ere, neurri batean, Udal Euskaltegiko kumea naiz, bertan euskara sendotu bainuen".*



## EZ GALDU EUSKARAREN TRENA!

- Euskalduntze maila guztiak
- Alfabetatze
- Ikastaro bereziak

Beka sistema daukagu!

Matrikula epea: irailaren 4tik 13ra arte  
Plaza mugatuak.



Informazio gehiagorako:

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**



● *Antxon Iturriza*

# Mendian ibiliz mendiaz idazten

**Hirian jaiotakoa izan arren, edo izateagatik akaso, Antxon Iturriza "Aizpel"ek gaztetatik izan zuen inguruko mendiak ezagutzeko grina. Ernio izan zen lehena. Harrez gero makina bat igo ditu, ingurukoak eta urrutikoak, baita mendia eta naturari buruz hainbat kontu idatzi ere.**

**- Mendiarekiko zure harremana nola sortu zen?**

- Beno, beste askorena bezala. Mendia bertan daukagu eta askotan igandeetan, 12-13 urterekin, ez geneukan ezer hoberik egiteko.

**- Oraindik mendigoizale?**

- Mendira joaterik ez dudan eguna iritsita ere, badaikit beti izango naizela mendizalea.

**- Euskal Herriko mendi gehienak ezagutzen dituzu?**

- Lurralde lurralde, esango nuke Gipuzkoakoak baietz. Bizkaian gutxiago. Nafarroa oso zabala denez ezin esan dena ikusi dudarik. Araba orain ari naiz ezagutzen. Iparraldea, berriz, duela gutxira arte ez dut deskubritu.

**- Eta gustokoena zein duzu?**

- Lehenengoa, Ernio.

Askotan joaten naiz, erromes sentimental partikular gisara. Erniok zerbait esaten dit eta uste dut mendiari zerbait esaten diodala neuk ere, egoera guztietan ezagutu dut eta: jenio txarrez eta onez, elurtuta, udan, gauzez, egunsentian...

**- Bastoia eta zahatoa alde batera utzita sekula hartu dituzu pioleta eta soka?**


- Ezer handirik egin barik, baina bai. Bidaiari izpiritua dudanez beti izan dut kanpoko mendiak ezagutzeko gogoia eta ibili izan naiz munduan zehar gauza sinpleak eginez, zailtasun gutxiakoak.

**- Konpetitibatea gero eta nabarmenagoa da mendian?**

- Hori ez da berria. Betidanik errealitatea alde bate-tik joan da eta filosofia bestetik. Bestea gaintzea eta nolabait bestea baino gehiago izatea jendeak barruan daraman gauza da.

**- Aipatuko zenituzke labor-labor euskal mendizale-tasunaren aurrerapausu erabakiorrenak goi-menditan?**

- Federakuntzaren sorrera izango litzateke lehena, zegoen mugimendua kanalizatzeko balio zuen eta. 67an Andeetara egin zen lehen expeditioak, Alpeetatik kanpo zerbait egiteko gai ginela



konturatu ginenez, izan zuen garrantzia ere. Beste bat Martin Zabaletak Everest-a igo-tzea izan zen, himalayismo-aren mugimendua ugaltzea ekarri zuen eta. Azkena Iñur-rategitarak Everest-a oxigeno barik igotzea litzateke.

**- Asteburuan Besaide eguna ospatzen da. Zerbait esaten dizu horrek?**

- Urteroko erreferentzia bat izan da niretzat. Garai batean neguko denboraldien hasiera ofiziala izaten zen, elkarrekin ibilbideetara irtetzeko denboraldia markatzen zuena. Elkartzeko polit bat izaten da, nahiz eta askotan mingotsa izan, azkenean mendian hil direnak gogoratze biltzen gara eta.

**- Nola hasi zinen mendiari buruz idazten?**

- Kasualitate batekin izan zen. 1976an Pako Iriondok

federakuntza utzi behar zuen, eta hauteskundeak zeuden. Orduan, *La voz de España*-n idazten zuenak esan zidan ea hauteskundeak bukatu arteko tarte bete nahi nuen. Baiezkoa erantzun nion. Antton Bandres-ek irabazi zituen eta jarraitzeko eskatu zidan. Eragozpenik ez neukanez hartu egin nuen eskaintza, orduan federakuntzak zuzentzen zuen gauza zen eta. Gure asmoa komunikabideetan mendiari buruzko kalitatezko informazio egotea zen, eta alde horretatik eskola apur bat egin da. Euskal Herrian dagoen ugaritasuna Estatuan ez dago beste inon, piskanaka piskanaka komunikabideetan behar hori sortu da.

**- "Aizpel" ezizena nondik dator?**

- Garai batean aldi berean, *La voz de España* eta *Egin*-en idazten aritu nintzen. Ez zen oso zuzena toki bietan izen berdinez agertzea, eta horregatik hasi nintzen Aizpel ezizenez sinatzen. Izenak ez du esanahi berezikik, Ernio ondoan dagoen tontortxo bat besterik ez da.

● **"Euskal Herrian dagoen ugaritasuna Estatuan ez dago beste inon, piskanaka piskanaka komunikabideetan behar hori sortu da"**



## Iñaki Riviere

# Margolari gaztearen aurrerapausu handia

23 urte besterik ez ditu baina ezaguna da Arrasaten. Orain, Arrasatera ezezik Estatura zabaldu du bere obra eta emaitza onak jaso ditu: Estatu mailako lehiaketa batean erakunde batek, 700 obren artean, berea aukeratu du erosteko.

— Lehiaketa garrantzitsu batean koadro bat saltzea lortu duzu. Non izan da hori?


— Lehiaketaren izena "Exposición Nacional de Artes Plásticas de Valdepeñas" da eta aurten 56. edizioa ospatu da. 700 obra aurkeztu dira.

— Nola izaten da sariketa?

— Aurkeztutako lan guztien artean aukeraketa egiten du epaimahaiak. Aukeratu-tako lanetatik 4k lehen lau sariak eramaten dituzte, 3 milioi eta 800.000 pta. bitartekoak. Gainontzeko lanak beste aukeraketa batera pasatzen dira eta aukeratzaren diren obrak, aurrez konprometitu diren instituzio batzuk erosten dituzte. Nire lana 16 horien arteko bat izan da eta "Teatro y Cine" izeneko erakundeak erosi du. Oso pozik nago.

— Lehiaketa honetan parte hartzen duzun lehen aldian izan da?

— Bai. Gure lokalean pintura klaseak ematen dituen



irakasleari esker aurkeztu nuen koadroa lehiaketara. Berak nire estiloa lehiaketa honetara oso ondo egokitzen zela esan zidan, nahiz eta edozein estiloko koadroak aurkezte daitezkeen.

— 23 urte besterik ez eta dagoeneko koadroak saltzen...

— Egia esan ni izan naiz lehiaketa honetako parte-

hartzaille gazteena eta nirekin batera oso margolari ospetsuak aurkeztu dira, kurrikulum aberatsekoak... baina argi dago jende gazteak egiten dituen lanei asko begiratzen diola epaimahaiak eta azkenean margoa da balio duena eta ez kurrikuluma.

— Noiz margotu zenuen "Deseos de Libertad" koadroa?

.....  
**"Margotzen dudana guztiak denboraren joana isladatzen du, zahartutako gauzak margotzen ditut"**

droa?


— 1993tik zegoen margotuta, baina hain handia izanik orain arte ezin izan dut saldu. Koadro txikiak errazago saltzen dira eta txikiak, asko saldu ditut.

— Nola azalduko zenuke zure obra orokorki?

— Nire obra erromantizista da eta Friedrich margolari erromantikoen eragina dauka. Margotzen dudana guztiak denboraren joana isladatzen du; hau da, zahartutako gauzak margotzen ditut beti: apurtutako horma zaharrak, leiho zikinak, abandonatutako industriak... gauza ilunak eta askorentzat tristeak. Dena dela, orain eta lehen aldiz, oraindik sortu ez diren gauzak margotzen hasi naiz: Gughengeimari buruzko koadro batekin hasi naiz eta kritika bat da. Hau ere oso tamaina handikoa.

— Daukazu estilo ilun horrek badu zer ikusirik zure izakerarekin?

— Baietz uste dut. Betidanik esan dut norbaitek zerbait margotzen badu zerbaitegatik margotzen duela eta nik nahiko ezkor ikusten dut nire burua. Erabaki beharreko gauzei buelta asko ematen diet eta horregatik, nire pinturak nire izakerarekin zerikusirik baduela uste dut.



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.  
 Offset industrialia**

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**BAZAR**  
 TOKI ON

**ELEKTRONIKA  
 ARTIKULUEN  
 SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1  
 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



# Kontzertu egitarau aberats eta zabala Arrasate Musikalen eskutik

Arrasate Musikalek dagoeneko prestatu du datozen hilabeteotarako kontzertu egitaraua. Ohiturari jarraituz, hemendik eta datorren urteko urtarrilera arte opera, orkestra eta bakarlari handien emanaldiak izango dituzte entzungai arrasatearrek.

Emanaldiak Amaia Antzokian izango dira eta beti bezala, sarrerek salneurri bat izango dute musika eskolako bazkide direnentzat eta beste bat desberdina ez direnentzat.

Emanaldi guztietako musika taldeek eskainiko dituzten obrak zehazterik ez badago ere, hona hemen kontzertuen zerrenda:

• **Irailak 30:** Artikutzako Musika Ihardunaldietan sortutako Kamarako Orkestra Gipuzkoarra.

• **Urriak 17:** Kantu eta piano errezitaldia. Kantuan Bettina Smith mezzosoprano noruegarra eta pianoan Ana Sanchez Donate pianujole donostiarra. Bhrams, Müller,



Irwin Foffman orkestra zuzendaria Arrasaten izango da.

Granados eta Montsalvagen obrak eskainiko dituzte.

• **Urriak 20:** Txileko Orkestra Sinfonikoa Irwing Hoffmanen zuzendaritzapean. Bakarlaria: Manuel Jimenez harpa jolea. Kontzertuaren lehen zatian Luis Acvis, Camargo Guarnieri, Benjamin

Gutierrez, Lorenzo Fernandez eta Alberto Ginastera autore hegoamerikarren obrak joko dituzte. Bigarren zatian Bhramsen Sinfonia N°1 Do Menor joko dute. Bakarlariak Nicanor Zabaletaren harparekin joko du.

• **Urriak 25-28** (zehaz-

teke): Txelo eta piano errezitaldia. Txeloan: Miren Zubeldia, Arrasate Musikaleko irakaslea.


• **Azaroak 4-5** (zehazteke): Ostravako Teatroko Opera Nazionalea.

• **Azaroak 16:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoko hirukotea.

• **Abenduan 21:** Letoniako Orkestra Nazionalea eta Goikobalu. Borsak edo Faure-ren Requiem.

• **Urtarrilak 14:** Espainiako Orkestra Nazional Gaztearen (JONDE) kontzertua.

Emanaldi hauetako batzuk Arrasate Musikalek Eduardo Clausen Zubiriarekin daukan harreman estuari esker burutuko dira. Beste batzuk ordea, Kutxa Fundazioak antolatutakoak izango dira. Txileko orkestra Fernando Poblete Produzioak, Txileko enbaxada eta Txileko Aire Armadaren laguntzaz etorriko dira.



## BEREYA S.A.L. elektrizitate

- Materiale elektrikoak
- Antena parabolikoak
- Zerbitzu teknikoak
- Instalakuntza elektrikoak
- Portero automatikoak
- Alarma elektronikoak
- Konponketa orokorrak

Erdiko Kale, 50 etxabehea • Tfnoa: 79 13 79 • ARRASATE





Arasateko Udal Banda atera izan dugu lehenago ere gure Fotozaharraren atal honetan. Aste honetakoa gerra aurretik atera zuten eta orduko musikoetatik gaur egun bizi direnak gutxi direnez, ez dakigu seguru erretratua non atera zuten. Gasteizen ateratakoa izan daiteke, plazako arkupeen ondoan, Andremari Zuria- ren jaietan parte hartzera joanda edo zeudela; Izan ere, erretratu hau 1932ko abuztuaren 6an atera zen.

Bandaren atzealdean begira daudenen izenik ez dugu jakin, baina musikari mondrauetarrak, honako hauek dira, goitik ezkerretik hasita:

**Jose Mari Lasagabaster, Donato Arregi, Iñaxio Olazabal, Guillermo Juldain eta Segundo Vitoria.**

Beherago, **Hipolito Uriarte, Jose Mari Arriaran, Eloy Urzelai, Sampe- dro, Aranbarri eta Azkoa- ga.**

**Jose Ortuoste, Herre- ra, Santi Olazabal, Niko- las Zarraoa, Carlos Andres, Fidel Amozarrain eta Adolfo Gómez.**

**Herrera, Mariano Azkarate, Fernando Amozarrain, Luis Agirre, Miguel Sanpedro, Justo Munarriz (zuzendaria), Guillermo Lasagabaster, Jose Lasa, Santi Otxan- diano, Rufo Aranbarri eta Zeferin Mendizabal.**

Makurtuta, **Bixente Aranbarri.**

Arreta  
handiko sukaldea

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

UGARAN  
jatetxea

Giro  
abegikorra

ARRASATE



# Z E R N A H I A G O ?

## Blanca Elices Alai Zinemako txartelaria

- Hemen eman diren filme guztiak ikusi dituzu? Ezta gutxiago ere.
- Ze filmek lortu du takila errekorra? "Parque Jurásico" k.
- Gertatu izan da inor ez etortzerik? Bai, "El hijo de la Pantera Rosa" filmearekin.
- Sarrerako prezioa garestia iruditzen zaizu? Gaztetxoentzat bai, baina gainontzekoentzat ondo dagoela uste dut.
- Zenbat diru jasotzen duzue domeka arratsaldeko sesio batean? 50.000 pta inguru.
- Noiztik lan honetan? Badira 3 urte.
- Aspertu egiten zara? Bai.
- Bideoak zineari kalte egin diola uste duzu? Bideoak ez, baina telebistak bai.
- Filme bat? "Mediterraneo".
- Espero zenuena baino gutxiago gustatu zaizun bat? "Los Inmortales".
- Zinea gustatzeak eta hemen lan egiteak badu zerikusirik? Ez.
- Jendea urduri jartzen da takilan? Ez.
- Anekdotarik gogoratzen duzu? Bereziki ez baina beti daude pertsona jasangaitzak; prezioa garestia iruditzen zaiela eta, protestaka hasten dira asko.
- Zein aktorekin hartuko zenuke kafetxo bat? Mathew Modine-kin.
- Ez zaizu sekula aktorea izateko ideia burutik pasa? Ez.
- Zinera zoazenean zer eramaten duzu jateko? "Hartxoak", baina egia esan ez zait gustatzen nire inguruko jendea jaten entzutea.
- Donostiako Zinemaldira joateko asmorik? Ez, lan egin behar dut.
- Zein da Alai Zinemako esarleku onena? Erdikoetatik, atzetik hasita 6. edo 7. hilarako edozein.
- Pelikula zaharrak ala berriak. Zeintzu nahiago? Berriak.



## LEHIAKETAK

### "Arrasate 95" lehiaketan oinarriak kalean

Kalean dira AEDk udalaren laguntzaz urtero antolatzen dituen ipuin, poesia, bertso-paper, komiki, argazki, diapositiba eta bideo lehiaketako oinarriak.

Literatur lehiaketan Deba Garaian bizi, lan egin edo ikasten dutenek bakarrik parte hartu ahal izango dute eta partehartzaileak lau mailatan banatuko dira adinaren arabera. Adina kontuan hartuta lanen luzeera eta sariak desberdinak izango dira. Gaia librea da.

Komiki, argazki eta diapositiba lehiaketan Deba Garaiko edozein pertsonak parte hartu ahal izango du, bideo lehiaketan berriz, Euskal Herriko edozeinek. Gaia librea da, baina badago antolatzaileek bereziki proposatzen duten bat: "Trenbide zaharra erabiliz bidegorria eraiki". Bidegorriari buruzko lanik onenak 10.000 ptako sari berezia jasoko du.

Aipatutako lan guztiak urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira AEDn.



*Elena*

Bizkaia Etorbidea, 1 etxeba ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**VE ECUADOR**

B i d a i a k

**Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



• ESAERA •

*“Ikasketetan ez zaituz  
saiatu besteak baino  
gehiago jakiten, baizik  
eta hobea izaten”,*

SENECA

• JEROGLIFIKOA •



Mendi ezaguna.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10				11		
12			13			14
15			16			
		17				
18						

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Oskola duena. 8. Hala-ber, orobat. 9. Musika-eskalako 1. nota. 10. Arrasateko ahizpa kontzertu-emaileak. 12. Joaten ari da. 13. Zapora atsegina duena. 15. Bi, erromatar erara. 16. Lurralde. 17. Barre eginez. 18. Haurtzain.

**Bertikalak** 1. Inoren esana egin. 2. Denbora, garaia. 3. Kipatu aditzaren infinitiboa. 4. Oiloak lo egiteko haga multzoa. 5. Gehiegizko handinahia. 6. Uda eta neguaren arteko urtaroa. 7. Nobelioa. 11. Ilean bizi den intsektu txiki. 14. (Ald.) Arrazoi, zergati. 16. Laztu aditzaren infinitiboa. 17. Alfabetoko 2. letraren izena.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Ez zara inoiz aberastuko baina lanik ez zaizu faltako.

**Taurus** Zure familiartekoen laguntza ezinbestekoa izango zaizu.

**Gemini** Negarrez hasten zarenean inguruko guztiak barrez lehertzen dira.

**Cancer** Penagarria iruditzen zait asteburuetan daramazun plana.

**Leo** Osasunez ondo zabiltzala uste duzu baina noiz arte?

**Virgo** Umoretsu esnatzen zara baina gauetan inork ezin zaitu aguantatu.

**Libra** Zure mesederako gehiago ez edatea eskatuko nizuke.

**Scorpio** Ikasten hasteko ordua da. Ahaztu behingoz oporrak.

**Sagitarium** Kirolari ona zara baina txiste kontalari txarra.


**Capricorn** Zein itxura eskaxa duen zure katuak. Jaten ematen diozu?

**Aquarius** Kontzentrazioa behar duzu bestela ezin da lanik egin.

**Piscis** Kitto! Gehiago ez dizute adarrik joko.

# Etxe-Aundi

Torreauzo, 9  
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,  
**EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!**  
Egin zure erreserba orain!!

*Anna de Codorniu*




## “Gure objetibotik”: puntako gaiak kalera

U rriaren 19an programa berria estreinatuko da Arrasate Telebistan: “Gure objetibotik”.

Jon Iñaki Lasa ATBko kolaboratzaile ezagunak aurkeztuko du mahaingurua eta pilpilean dauden gaiak ikuspuntu desberdinetatik aztertzea izango du helburu. Horretarako iritzi desberdineko hiruzpalau gonbidatu ekarriko ditu programa bakoitzean.

“Gure objetibotik” izenburuak programaren helburua isladatu nahi du: “gure” hitzak programan jorratuko diren gaiak herriaren interese-koak izango direla esan nahi du eta “objetibotik”, tratatuko diren gaiak objetiboki jorratuko direla.



## KOMIKIA



## Etxe-Aundi

### 1. PLATERA

*Bi plater aukeran*

*Etseko gozoteria*

### 2. PLATERA

*Haragia edo arraina*

*Etseko ardo gorria eta beltza*

*Kafea*

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## “PAL”

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

## SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Oskoldun, 8. Bat-  
ta, 9. Do, 10. Eparza, 12. Doa, 13.  
Gozo, 15. II, 16. Lurki, 17. Barrez,  
18. Umezain.  
Bertikalak: 1. Obeditu, 2. Sasot, 3.  
Kipa, 4. Ota, 5. Largura, 6. Udazken,  
7. No, 11. Zortzi, 14. Oiz, 16. Laz, 17.  
Be.  
Jergilitikoa:  
Gorbeta.



**Etxebizitzak**

- **Etxea salgai Aretxabaletan**, 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Altzari guztiekin. Prezio interesgarria. Dei egin gauaz 79 67 26 tfnora.
- **Pisua alokatu nahi nuke Arrasaten** edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 00 27. Txotxe.
- **Larrea plazan pisua alokatu nahi dut.** Tfnoa: 79 36 79.
- **Ikasleendako pisua alokagai** Uribe auzoan. Tfnoa: (94) 447 09 96.
- **Lagun bat behar da** Donostiako erdialdean pisu merke bat osatzeko. Tfnoa: 79 86 06. Itziar.
- **Jende gaztea behar da pisua osatzeko.** Tfnoa: 62 92 42. Jon.
- **Familia baten etxean logela bat eskaintzen da.** Tfnoa: 79 58 22 edo 79 40 53.
- **Maixoar etxean bi plaza garaje** alokatzen dira. Sarrera Zerkaosteka kaletik. Dei egin bulego orduetan 77 03 22 tfnora.
- **Altamiran garaje plaza bat alokatzen da.** Dei egin bulego orduetan 77 03 22 tfnora.
- **Donostian pisua osatzeko neska bat behar da.** Tfnoa: 76 24 00.
- **Lagun bat behar da pisua osatzeko.** Tfnoa: 74 00 37. Ainhoa.
- **Bilbon pisu bila baldin bazabiltza,** guk lagun batendako tokia daukagu. Tfnoa: 79 81 96.
- **Urritik aurrera sukaldea** erabiltzeko aukeraz logela bat alokatzen da. Tfnoa: 79 01 20.
- **Pertsona bat edo bi behar dira** pisua osatzeko. Dei egin 79 25 98 tfnora.

**Lana**

- **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zaintzeko. Goizez lan egingo nuke. Tfnoa: 79 68 18. Nerea.
- **Ingelesezko klase partikularrak ematen dira.** Dei egin 5etatik 9etara 79 22 86 tfnora.
- **Ingelesezko klaseak emango nieke** EGB, 1. eta 2. REMeko eta COUko ikasleei. Mekanografia eta informatikako klaseak ere emateko gertu. Tfnoa: 79 68 18. Argutzane.
- **Ile apainketan diploma ateratako neska** gaztea lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81
- **Ile apainketan diplomadun neska** gaztea lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81.
- **Neska prest ume txikiak** zaintzeko eta etxeko garbitasuna egiteko. Tfnoa: 79 68 18.
- **Ingelesezko klase partikularrak** ematen dira, tituloduna naiz eta akademiatan esperientziarekin, Tfnoa: 79 28 98.
- **Klinika eta geriatrian** esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 09.
- **Emakumea gertu** egun erdiz edo orduka lan egiteko denda edo taberna baten. Tfnoa: 79 53 18.
- **Mutil edo neska,** denda baten lan egin nahi baduzu, datuak bidali 259 postakutxara.
- **Umeak zaindu, etxeko lanak egin** edo denda batean lan egingo nuke. Tfnoa: 79 93 17.
- **Bizikleta mekanikari** kanadiarra bizikletak konpontzeko prest. Tfnoa: 79 97 38.
- **Gazte kanadiarrak ingelesezko klase** partikularrak emango litzuzke. Tfnoa: 79 97 38.
- **Frantsesezko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 27 06.

• **Magisteritza eginda daukan neska batek** OHOKO klase partikularrak emango litzuzke. Tfnoa: 79 98 73. Rakel.

• **Emakumea behar da** pertsona nagusi bat zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa da. Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera. Tfnoa: 79 98 26.

• **Andra erizain laguntzaileak** eta gerontologian esperientziadunak pertsona nagusiak zainduko litzuzke. Tfnoa: 79 34 53.

• **Ludi Berri musika taldea** zure ezteietan, banquete, kintada edo jaialdietan jotzeko gertu. Tfnoak: 77 00 95 (Juan Luis Lekunberri) edo 77 11 63 (Jose Luis Arregi).

**Salerosketak**

- **44-45 zenbakiko Doctor Martens** botak salgai. Beltzak dira, 10 zulodunak. Tfnoa: 79 97 38. Bob.
- **GAC motor txikia** prezio onean salgai. Tfnoa: 79 81 70. Ordu 2etatik 5etra.
- **Ordenadorea salgai.** 386-DX-40 eta 32 bits-eko bus lokalarekin. 4 mega RAM eta 170 mega ditu. Softwarea jarrita dauka. Prezioa: 140.000 negoziagarriak. Tfnoa: 79 73 82.
- **Kontzertuko Begini** markako akordeoia salgai. Kromatikoa eta konbertidoreaz Eskuinean 63 nota, 15 erregistro eta 120 baju. Dei egin 15tik 16ra edo 22tik aurrera 45 87 06 tfnora.
- **Ezkontzako soinekoa salgai** marfil kolorekoa eta oso prezio interesgarrian. Tfnoa: 79 41 31.
- **Hobby- 475 markako karabana salgai.** Abantze, hozkailua eta berogailua dauka. Tfnoa: 79 84 17.
- **Bigarren eskuko kitarra** elektrikoa, anplifikatzailea eta bateria baten bila gabiltza. Saldu nahi baduzue dei egin 79 13 01 tfnora. Eli.
- **Razesa markako txirrindua salgai.** 52 tailakoa. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 03 80.

**Aste Gazte**

**Autobusak**

• "Aixola" unibertsitarien elkar-goak aurreko bi ikasturteetan legez, Bilbo eta Donostiako fakultateetara egunero joan-etortzeko autobusak antolatu ditu. Hileko prezioa: 12.000 pta. Izen emateko epea: irailaren 22 arte, Gazte Bulegoan (2 argazki eta 500 pta).

**Bekak**

• Kontsumo arloan ikerketa lanak egiteko bekak. Ondoko karrera hauetan lizentziatutakoak: zuzenbidea, biologia, farmazia, albaritaritza, medikuntza, kimika, eli-

kagaien zientzia eta teknologia, bibliotekonomia eta dokumentazioa, informatika. Epea: irailak 25.

• 95-96 ikasturtean unibertsitate maila eta goi-mailako beste ikasketa batzutarako (dantza, arte dramatiko, arte plastiko, diseinu ikasketak, soinketa, turismoa...) beka deialdia. Epea: urriak 16.

• 95-96 ikasturterako bekak, ondoko ikasketa maila hauetarako: haur hezkuntza (2. zikloa), I. mailako hezkuntza, OHO, hezkuntza berezia, HHI-EPA, BBB eta UBI, LH I eta II, IEE I eta II,

lanbide moduloak, eta beste hainbat. Epea: urriak 20.

**Irrati tailerra**

• Gazteei zuzendutako Irrati tailerra, Arrasate Irratian. Irailaren 29tik Santamasak arte, ostiralean, arratsaldeko 7etatik 9etara. Matrikula: 3.000 pta. / 1.500 ikasle eta langabetuentzat. Izenematea Gazte Bulegoan.


**Lehiaketak**

• "Gabriel Aresti XIII Ipuin Lehiaketa". Gai librea. 4-15 orrialde bitarteko lanak. Epea: urriak 13.

• "Pasai Hiria" poesia lehiaketa. 15 urteik gorakoentzat. Euskaraz zein gazteleraz. Abenduak 1.

**"Bertsolari orok izan behar du intsumisio puntu bat".**

**JON SARASUA  
"DIARIO  
DE NOTICIAS"**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**





# Arrasateko OSASUN GIDA

## **ALBAITARIAK**

ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ..... ☎79 15 31

## **ALERGIA ETA ASMA**

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43..... ☎79 81 00 / 79 81 11

## **DENTISTAK**

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎79 95 60

ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90

GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎79 73 88

IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45

LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎77 12 63

## **ENTZUMENA, SUDURRA, EZTARRIA**

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎79 20 18

## **FISIOTERAPEUTAK**

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .... ☎77 03 96

## **GINEKOLOGOAK**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta, 17-Behea ..... ☎79 20 18

## **LOGOPEDIA**

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## **MASAJARIAK**

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ..... ☎77 06 22

## **MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK**

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Anlisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎79 44 22

## **MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK**

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABALETA..... ☎79 55 25

## **OPTIKA**

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎79 25 98

LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎79 29 95

## **PODOLOGOAK**

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ..... ☎79 50 75

## **PSIKOLOGOAK**

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎79 48 77

## **REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA**

GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1..... ☎77 00 40

**OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 77 08 15**





# OPEL VECTRA BERRIA

## merit



## GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE HAIN GUTXIREN TRUKE.

115 CVko 2.0i alemaniar batek adina, Opel injinerutza Alemaniar ospetsuak indartua. Zuk merezi bezalako ekipamendua: **Direkzio lagundua, pretentsoredun segurutasun uhalak, alboetako segurutasun-barrak, itxitura zentralizatua, leihoak isteko elektricoa, atzekaldeko jarleketan ere burua etzatekoa, antena elektricoa...** ikusteko zein berba egiteko hainbeste emango dizu, ezin zara Opel Banatzailearengana probatzera etorri barik geratu. Izan ere, sekula ez duzu hain gutxiren truke hainbeste jaso.

OPEL VECTRA MERIT BERRIA. BERE PREZIOA MERITU HUTSA DA.

OPEL 

Z U R E   Z A I N   G A U D E

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFICIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.